

Magia tailerrak

Iristen da Mago Hodei Magoa konpainiaren proposamen berria, magia jende guztiari hurbiltzeko era, eszenatokiko mugak hautsi eta denok euren eskuekin magia egin ahal izateko.

Ohiko tailerrekin desberdintasun asko aurkezten dituen ideia berritzailea eta neurrira egokitutako tailerrak eskainiz leku guztietara iristeko asmoarekin iristen dena.

**INFORMAZIO GUZTLA HURRENGO
ORRIALDEETAN**

NORI DAUDE ZUZENDUTA?

Tailerrak bai umeentzat bai helduentzat daude zuzenduta. Bietako zeinekin egiten den arabera tailerraren dinamika, edukia eta asmoa aldatzen da. Biak konbinatu eta umeak gurasoekin egiten duten tailer bat egin daiteke (kasu horretan pertsonalizatu beharko da, ez baitaukagu horrelako tailerrik diseinatuta).

UMEEI

Bi adin-multzoetan banatuta

05 - 12

10 - 16

Tailerretan umeak etxean aurkitzen dituzten materialekin prestatzen dituzte jokuak: kartulinak, paperak, guraizeak, pegatinak, puxikak, zapiak eta abar.

JOKU HAUEK PRESTATZEKO BEHARREZKOA DEN MATERIAL GUZTIA KONPAINIAK ERAMATEN DU.

Tailerra bukatzean fabrikatutakoa etxera eramaten dute, jokua familiari edo lagunei egin ahal izateko. Baita oroigarri gisa ere.

Tailerra adin desberdinetako beste umeekin egiteak haien arteko harremanak garatzen ditu, zailagoak diren zereginetan helduagoak direnak txikiei laguntza eskaini ahal dietelako. Gainera, guztien artean ongi pasatuz, askotan eskoletan sortzen diren mugak apurtzen dira.

Tailerrak ezin hobeak dira txikien trebetasunak lantzeko (moztu, itsasi, tolestu eta beste motatako eskulanak egiten dira) eta lotsa kentzeko (tailerraren amaieran ikuskizun txiki bat egiten da).

Prestatzen diren magia jokuen bidez baloreak landu daitezke baita ere (errespetua, berdintasuna, barkamena eskatzearen garrantzia); hala nola hizkuntza baten erabilpena sustatu (euskara, gaztelania edo ingelera).

Azaldutako edozein bariazioetan interesa izanez gero esan tailerrak kontratatzean mesedez.

HELDUEI

16 urtetik gorako taldeak.

Helduekin umeekin eramandako umore berdinarekin egiten da tailerra, baina helburuak oso desberdinak izan daitezke. Tailerra taldean egitean talde dinamika garatzen da. Umeekin bezala hizkuntza bat sustatzeko aukera existitzen da.

Plazer bat izango da zuek proposatutako beste ideia batean lanean jartzea.

NOLAKO DINAMIKA JARRAITZEN DA TAILERRETAN?

UMEKIN

Tailerrak 60 minutuko iraupena daukate, bi blokeetan banatuta.

- Lehenengo blokea (50 minutu)

Tailerrak (bereziki taldearen lehenengoa baldin bada) galdera txanda bizkor batekin hasiko dira, lotsak kentzeko eta umeekin konfiantza sortzeko. Honen bidez haiei buruz eta magiagatik duten zaletasunagatik gehiago dakigu.

Jarraian beraiek fabrikatuko duten jokuarekin hasiko gara. Hodeik jokua egingo du magia emanaldi batean egongo balitz bezala, beraiek bukaerako emaitza ikus dezaten.

Jokua egin eta gero Hodeik azaldu egingo du eta bere fabrikazioa hasiko da. Horretarako beharrezko materiala banatuko du. Bitartean egin behar denaren argibideak emango ditu eta umeak lagunduko ditu behar dutenean (beti beste umeak oraindik bukatu ez baldin badute, bestela haien artean lagunduko dira).

Bukatzeko, joku fabrikatua eskuan izanda jokua entsaiatuko dute, Hodeik hasieran egin duen moduan egin ahal izateko.

- Bigarren blokea (10 minutu)

Tailerraren bukaeran, ordua baino 10 minutu lehenago, gurasoak, anai-arrebak, senideak edo umeen lagunak gelan sartuko dira, eta haientzat emanaldi txiki bat egingo dute. Umeek, Hodeiren oharrak jarraituz, prestatutako jokua “publikoaren” aurrean egingo dute. Gero jokua etxera eramango dute.

Senideentzat emanaldia egiten bukatu beharrean, magia profesional pixka batekin bukatzeko aukera existitzen da.


Tailerrean umeen irudimena asko lantzen da. Adibidez, tailerretako batean ur-puxika batzuk agertzen dira kukurutxo magiko batetik. Umeei etxean ideia berriak probatzera, eta puxikekin egin beharrean, konfetiarekin, dilistekin, serpentinekin edo bururatzen zaien beste edozein gauzarekin egitera animatzen zaie.

HELDUEKIN

Hainbat dira helduen bertsioan dauden aldaketak. Hasierako solasaldia pixka bat luzeagoa da, galdera txandan Hodeik bere lanari buruzko hainbat anekdota, nola hasi zen magian eta antzeko istorioak kontatzen baititu.

Gero jokua egin eta fabrikatzen da, umeen bertsioan bezala.

Bukatzeko, ezagunentzat emanaldia egin beharrean (egiteko aukera dagoela) hurbileko magiako emanaldi txiki bat egiten da, bertaratutakoak magia profesionala oso hurbiletik ikusi ahal izateko.





EZAUGARRIAK

JENDE KOPURUA

Tailer bakoitzeko gehiegizko jende kopurua (bereziki umeekin) 15 pertsonatakoa da. Talde murriztua izatearen abantaila ume guztiak arreta pertsonalizatua izan ahal dutela da, eta laguntza behar dutenean besteek ez dutela asko itxaron beharko, aspertzea eta tailerra motela egitea eragitea sahiestuz.

Parte-hartzaile kopurua 22 pertsona arte handitzeko aukera dago, gehigarri txiki batekin Hodeirekin batera Haur edo Lehen Hezkuntzan graduatutako pertsona bat joan egingo baita, umei arreta eta laguntza osoa eskaintzen jarraitu ahal izateko.

Tailer bat jende gehiagorekin egiteko asmoa baldin badaukazu esaiguzu, baina kontuan izan gero eta jende gehiago egonda orduan eta motelagoa dela laguntza behar duten unea.

IZEN-EMATE ZERRENDA

Zerrenda bat irekitzea eskatzen da, parte hartu nahi duen jendea apuntatzeko. Konpainiatik zerrenda jarduera egin baino 3 egun lehenago ixtea eskatzen da, material guztia prestatu ahal izateko.

BURUTZEKO TOKIA

Edozein tokitan egin daiteke. Eskatzen den gauza bakarra leku irekia ez izatea da. Horretaz gain mahaiak eta aulkiak egotea. Mahiak erdian eta aulkiak hauen inguruan (bat pertsona bakoitzeko) jarriko dira, horrela jende guztia elkarri begira egongo da borobil handi batean. *(Argazkia aurreko orrialdean)*

MUNTAIA / DESMUNTAIA

Emanaldi batekin alderatuz, prestakuntza oso erraza da. Hodei 30 minutu lehenago iritsiko da tailerraren lekura, bere materiala prestatzeko, elementuak banatzeko eta dena ongi dagoela baieztatzeko. Ez da beharrezkoa soinu ekipoaren erabilpena. Eszenografiaren kasuan, ezta ez da beharrezkoa, baina posible da muntatzea *(kontsultatu nahi izatekotan).*

Tailerra bukatzean, 10 minutu geroago dena bilduta egongo da. GUK KARGU EGITEN GARA TAILERREAN SORTUTAKO ZABOR GUZTIAZ ETA ABAR.

AUKERAK

Lau tailer desberdin garatu ditugu. Bakoitzean egiten eta fabrikatzen den jokua desberdina da.

ZER KONTRATATU DEZAKET?

TAILER DESBERDINAK

Tailer batetik lau tailerrak arte kontratatu ditzakezu. Imagina dezagu 4 tailer kontratatzen dituzula, talde berdinarekin egiteko asmoarekin:

- Tailer bat egin daiteke asteko egun bakoitzean (*astelehenetik ostegunera*)
- Tailer bakoitza asteko egun batean (*hilabete bateko 4 asteazkenetan, adibidez*)
- Bi tailer asteartean eta beste bi ostegunean (*bi tailer jarraian eginez, 18:00etatik 20:00etara, adibidez*)

TAILER BERDINAK

4 talde ateratzen baldin badira 4 tailer kontratatu daitezke, eta 4 aldiz berdina izatea talde desberdinentzat. Edo 2 talde ateratzen baldin badira eta 4 kontratatzen baldin badituzu, bi tailer egin daitezke talde bakoitzarekin.

PACKAK: TAILERRAK + IKUSKIZUNA

Tailerrak eta ikuskizuna kontratatu ditzakezu beherapen interesgarri batekin. Emanaldia publikoa izan daiteke eta antzokian, kultur etxean edo beste leku batean egin herri osoarentzat zuzenduta.

“Magia Zikloak” modu erraz batez egin ahal izateko proposamena da. Adibidez, bi asteazkenetan umean magia tailer batera joaten dira, eta hirugarren asteazkenean, kultur etxean beraiekin tailerretan egon den magoaren magia ikuskizun profesionala ikustera joaten dira.

Oso ongi funtzionatzen duen idea da, hainbat egun magia ikasten egon eta gero umeei magia ikuskizuna ikusteko gogoak handitzen zaielako.

Zure idea kontatzea eta tailerrak edo magia zikloa nola egin nahi duzun azaltzea nahi dugu. Hemen agertzen ez den edozein konbinazio ongi etorria izango da eta errealitate bihurtzea plazer bat izango da.

JADANIK GURE TAILERRETAN KONFIANTZA IZAN DUTE:



Ayuntamiento de la Cendea de Galar
Galar Zendeako Udala



ZESTOAKO UDALA



Ayuntamiento de
Artajona



Gure asmo nagusia tailerren eta tailer + ikuskizunen proposamena ahalik eta moldagarrien izatea da, beraz gustura entzungo dugu zure proposamena eta errealitate bihurtuko dugu. Idazteko edo deitzeko zalantzarik ez izan.

(+34) 646 236 649

info@magohodeimagoa.com

www.magohodeimagoa.com